

FISIKA

ETA

KIMIKA

*Munduan beste askolez
artaburuen eskolez
laster aspertu nintzaden
maixuez eta eskolez*

Munduan beste leku askotan bezala, bazen behin Bizkaiko barrenean mendiz inguratutako herri txiki eta lirain bat. Gorbeia eta Urkiolako parkeen mugan eta Indusi ibaiaren inguruan hedatua..

Bertan hogeituro urteko morroia bizi zen; Mikel, bere ama eta aitona jaio ziren baserri berean.

Txikitatik baserriko eta inguruko animaliekin kontaktuan naturarekiko maitasun puska ezina uztartu zuen. Mutikotan, udaberrian, zozoen kabiak bilatzera joaten zen bere lagun Iñakirekin. Beste batzutan, udako egun sargoritsuetan, amak Bilboko Plaza Berrian erositako biskarekin ihiak igurtzi eta ur gutxiko errekatxo bazterretan ipintzen zituzten harritxo batetik bestera kardantxiloak ura edaten jeisten zirenean bertan harrapatzeko. Beste metodo bat, landa erdian zuhaixka bat jarri biskatutako ihiekin, azpian etxeo kardantxilo kantaria erreklamo moduan kaiola barruan ipini eta honek abesterakoan, beste kardantxiloak hurbiltzen ziren kuriositateak erakarrita eta ihietan itsatsita gelditzen ziren. Ondoren, hartutako txoriak etxera eramaten zituztenean, errautsekin garbitzen zizkieten biskaz beteriko lumak astiro astiro.

Ongi gogoratzen zuen Mikelek amarekin Bilboko Plaza Berrira joan zeneko egun hura. Aurreratuta zeuzkan txanponekin bere lehenengo kardantxilo kantaria erosi zueneko.

Kartoizko kutxa txiki batean ekarri zuen lehenengo trenez eta gero autobusez.

Udako egun beroetan txankletak ipini eta ibaira joaten ziren kangrejoak, ezkailuak eta harripetan ezkututzen ziren sarboak sardexkarekin harrapatzera. Baita plastikozko ur botilari burua moztu eta buelta emanda botilontzian berririo sartu, sokatxo batekin lotu eta ogiz beterik urpean uzten zituzten butroi plastifikatuak hurrengo egunean ezkailuz beterik jasotzeko.

Behin amuarrain bat ere harrapatu zuten. Mikel liluratuta gelditu zen haren koloreen edertasunarekin. Lepo berdexka, puntu beltzak musturrean eta alboetan, baita puntu gorriak ere eta ostadarraren koloreak bere sabel zuriarekin. Une luze batez Iñaki eta biok begira gelditu ziren. Ondoren bi eskuen artean hartuta geldiro geldiro uretan utzi eta isatsa mugituz harri handi baten azpian ezkutatu zen.

Selektibitatea pasatu ondoren, Mikelen aitak semeak ingeniaritza edo mekanika arloko ikasketak egitea nahi zuen. Inguruko entepresetan lan aukera gehiago izango zuela eta. Baina Mikelek argi zeukan naturarekin zerikusia zeukan zerbait ikasiko zuela eta Biologian matrikulatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean.

Lehenengo kurtsoan, fisika eta kimika, estatistika eta biologiako ikasgaiak zituen.

Azkeneko honetako irakaslea sartu zenean... A ze sorpresa!

Maritxu!!!

Mikelen herrira aspaldiko hamar urteetan jende asko etorri zen Bilboko inguruetatik, behar bada bizimodu lasaiago baten bila. Eta han zegoen Maritxu, herrira etorritako horietariko bat, bere aurrean aurkezpena eta urteko egitarauaren berri ematen.

Bazekien Mikelek Maritxu irakaslea zela, baina inondik inora ez zuen espero EHUKo biologiako irakaslea izango zenik.

Gelara sartu bezain laster hitz egiten hasi eta Mikel ikusi zuenean konplizitatez beteriko irrifar bat luzatu zion hitz egiteari utzi gabe. Morroiak berdin erantzun zion, aurpegitik belarrietara odola bor- bor tsunami baten moduan igotzen sentitu zuelarik.

Ondoren, arbelean urteko ikasgaiak idazten hasi zenean, bere flekodun blusa txuria Levi's-en gainetik igo eta gerri buelta liraina erakusten zuen hankapuntetan arbeleko goiko partean idazterakoan. Blusa horrek ez zeukan paparrean eta behealdean tela askorik eta titizorro morea nabarmentzen zen besoak altsatu eta argitasuna zeharka sartzen zenean.

Edertasunaren ikonoa zen Maritxu Mikelentzat.

Habaildutako hile luze horia, bekain meheak eta begi txiki orlegi txapalak betule nabarmenekin. Sudur luxezka mutur borobilduarekin. Ezpain mardulak eta kokotsa leunki nabarmendua. Txinatar eta ume baten arteko zantzuak zeuzkan aurpegi eder horrek. Maritxuren irribarre batek edozein urtu zezakeen.

Nork esango luke emakume honek bi seme-alaba eta berrogei urte zituenik.

Hau naturaren edertasuna!!! – Pentsatu zuen Mikelek.

Fisika eta kimika ez zitzaizkion batere atsegin; are gutxiago aspaldi jubilatu beharreko emakume irakasle dinosaurio haiekin. Biologia bai, baina lehenengo egunean

ikusitakoarekin ezin zuen pentsatu nolatan mantenduko zuen arreta horrelako ikuskizunarekin. Urte gogorra dator! - Esan zuen bere baitarako.

Kurtsoa aurrerantz zihoan. Mikelek bariku arratsalde eta zapatu eguerdiko poteoetan behin baino gehiagotan ikusten zuen Maritxu. Baita berarekin hitz batzuk trukatu ere. Odola irakiten ipintzen zitzaionean zuritza tragu batez irensten zuen tenperatura eta konstanteak berreskuratzeko.

EHUn ere klasea amaitzerakoan sarritan hurbiltzen zen irakaslearen mahaira zer edo zer galdetzeko. A zelako morboa!!

Gainera, lau hilabete lehenago zurrumurrua zena jadanik baieztatua zegoen; Maritxu bere bikotekidearengandik banatu egin zen.

Ume batek eskolara ziba bat eramán jolasteko eta hilabete bat baino arinago denak ziba batekin joaten diren moduan, moda edo epidemia baten antzera zabaldu ziren bikote banaketak herrian. Mikelek nabaritu zion Maritxuri hilabete batzuk lehenago tristura aurpegian, baina udaberria etorri ala buelta ematen hasi zitzaioala ematen zuen.

Asteburu eta klase osteko hizketalditxoei esker biak elkarrenganako konfidantza hartzen hasi ziren.

Astelehen baten, nola xaguzaharrak ekolokalizazioaren bitartez eltxoak harrapatzen dituzten esplikatu zuen Maritxuk. Klase ostean, oi bezala, morroia mahaira hurbildu zitzaion irakasleari.

-Maritxu, nire baseritik hurbil dauden kobazuloetan xaguzahar ugari daude. Inoiz, mutikotan harrapatu dut baten bat sabaitik erorita.

-A bai? Ea asteburu baten edo bertara eramaten banauzun. Herrira etorri nintzanetik ez ditut kobazuloak bisitatu.

-Plazer handia izango da.

Egunak joan egunak etorri, uda hurbiltzen hasi zen. Bariku arratsalde baten, Mikelek aldean laupabost zuritza zeuzkanean, bere buru eta mihiaren arintasunaren mesedetan, Biologiako irakaslearekin topo egin zuen tabernan:

-Aupa Maritxu, zelan?... Noiz joango gara ba kobetara xaguzaharrak ikusten?

-Ai, ene bada. Parkatu Mikel, jada ahaztuta neukan. -Erantzun zion irribarre sarkor batekin. - Nahi baduzu datorren barikuan.

-Ederto.

Mikeli bere bizitzako aste luzeena egin zitzaion. Ama deika ibili eta erantzun ez, platerak erori, agindutako errekaduak ahaztu ... Denetarik gertatu zitzaion.

-Zer gertatzen da ba, Mikel? – Galdetu zion amak.

-Ez, ezer ere ez.

Udaberria eta gaztaroa, gasolina eta sua. –Pentsatu zuen amak.

Askenik iritsi zen zorioneko barikua. Mikel EHUra joan zen goizean goizetik eta biologia klasearen ondoren ez zuen lotsarik izan mahaira hurbildu eta Maritxuri arratsalderako zuten zita gogorarazteko.

Zaharren egoitzaren parean gelditu ziren bostetan. Hamar gutxiagotan han zegoen Mikel goiko bidera begira ea emakume liluragarri hura noiz azalduko. Ordu laurden itxaroten egon ondoren han agertu zen. Ilea txirikorda baten batuta, marra horizontaleko niki txuri-urdin bat, maia urdin batzuk eta trekineko botekin. Beti bezala, oso natural eta dotore. Lepoan motxila gorri bat zeraman.

-Arratsaldeon Maritxu, zer aste baterako goaz ala? – Galdetu zion txantxetan.

-Hobeto bai, aste baterako alde egin eta dena pikutara bota apur bat deskonektatzeko.

-Bagoaz?

-Bai, baina astiro, aspaldian ez bait naiz mendian ibili.

Han abiatu zen bikotea, erreka ertzetik lehenengo eta ondoren pinuditik Bentatxurirantza. Morroiak txantxak egin eta irakasleak barre egiten zion oinez zijoazen bitartean. Bideko landare, zuhaixka eta belar guztien latinezko izenak zekizkien Maritxuk eta Mikelek euskerazko bertako izenekin erantzuten zion irakaslearen harridurarako.

Konturatu orduko Indusiko txokoa ere pasatu zuten. Kobatarako aldapatxoa hartu eta baserri parean asfaltoa amaitu eta bidezidorra hasi zen. Laster Gentilzubi ikusi zuten eta Maritxu aho zabalik gelditu zen. Eskumatara bidexka estu bat hartuta Axlor izeneko zazikobara heldu ziren.

-Buff... Ezin dut gehiago. –Bere motxila gorria askatu eta ur botila bat barrutik atereaz Mikeli opatu zion harri handi baten ezeri ondoren.

Tragu bat hartu eta ondoren Maritxu hasi zen edaten. Konturatu gabe samatik behera erori zitzaion ura eta Mikelek ezin izan zuen begirada desiratsua disimulatu.

Maritxu konturatu egin zen.

-Zer, titietara begira ahal zabilta?

-Ez...Nik...

Orduan Maritxuk Mikelen bi eskuak hartu eta bere bularretan pausatu zituen. Bat-batean mutilaren arnasa zeharo bizkortu zen eta emeki emeki marradun niki haren azpitik titizorroa askatu zion muxu emanetz. Eskuak leunki bizkarretik aurreruntz ckarri zituen saihets aldetik bularretaraino.

Eta han zeuden, Urrekoatx eta Garaio, beraien inmentsitate naturalean. Gailurrean, tontorren ezaugarri postakutxa leun leunak. Eta bitartetik beheruntz jeitsita, sakontasun gabeko kobatxoa, Axlor non Aita Barandiaranek bisontearen adar trinkoa topatu zuen duela urte batzuk. Poliki poliki, barraskilo baten abiadan beheruntz, txilar eta elorritz estalitako kobazuloaren sarrera; eta han, han barruan, nolako tenperatura aldaketa! Antzina ateratako bisontearen adarrak berriro kobazulorako bidea aurkitu zuen baina han zebilen atzera eta aurrera, bere atsedean lekura sartzeko dudatan balego bezala. Argizaria bezala urtu ziren biak eta ondoren minuturik gabeko denbora batean besarkatuta gelditu ziren.

Ai Mikel... Ez dakizu zenbat denbora daramaten hau egin barik.

Ai Maritxu... Ez dakizu zenbat alditan egingo nukeen nik.

Eta biok barre algaraka lehertu ziren.

*Eta hau hola ez bazan
sar dadila kalabazan
eta irten dadila
gure herri liraineko plazan.*